



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Iparraldeko bigarren mailako
euskarako klaseetan lantzen den
literatura-autorearen profilaren
bila**

Idoia Rodriguez Mondragon

27-35 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.02.03>



Iparraldeko bigarren mailako euskarako klaseetan lantzen den literatura-autorearen profilaren bila

Rodriguez Mondragon, Idoia

*Université Bordeaux Montaigne, Euskal Herriko unibertsitatea,
rodriguez.midoia@gmail.com*

Laburpena

Nahiz eta frantses lurraldeko eskoletako bigarren mailako euskarako klaseetan eleberrigintza garaikidea lantzen den, irakasleak oztopo ezberdinei aurre egin behar die bere corpusa eraikitzeko. Ikasleen euskara mailari egokitzeaz gain, euskal literaturaren merkatuak zabaltzen dituen literaturaren kodeekin konposatu behar du.

Irakasleei bidalitako zundatze baten bidez, haiek eraiki duten corpusaren itxuratze bat marraztu da. Ipar Euskal Herriko klaseetan lantzen diren autoreak, nagusiki maskulinoak eta hegoaldekoak direla agertzen da. Bi faktore horiek eragina ukanen dute ikaslearen formakuntzan estereotipoak eta ulermen arazoak sortuko eta bermatuko dituelako.

Hitz gakoak: ikergazte, generoa, euskal literatura, eskola, Iparraldea.

Abstract

Even if bask teachers of the french territory introduce to the contemporary novel, there are different constraints to be faced in order to build a corpus. The teachers will have to adjust to the pupil's level and they will have to deal with the codes of the literary market.

By means of a survey sent to the teachers, an idea of the corpus that they use has been drawn. The authors analyzed in the North of the Basque Country are predominantly males and from the South of the country. Those two factors have some impacts on the pupil's formation: it will create and guarantee the development of different stereotypes.

Keywords: ikergazte, gender, basque literature, school, north.

1. Sarrera eta motibazioa

Euskaren irakaskuntza sistema ezberdina da Euskal Herriko lurralde politiken arabera. Iparraldea deituko duguna Frantses lurraldeko hiru probintziak izanen dira: Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea. Hiru lurralde horietan euskara ikasteko aukera ematen da ama eskolatik lizeoa arte, Seaskak murgiltzearen bidez, eskola publikoak eta pribatuak elebidun sailen eta inimizazioaren bidez. Gure azterketa Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan kokatuko dugu eta bigarren mailako (kolegiotik lizeoa arte) hiru sareei zuzenduko zaie. 2017an eginga izan den zundatze batetik abiatuko gara euskal ikasgaiaren irakasten den literatura eta autorearen profila ezagutzeko. Iparraldeko ikasleen euskara maila askotan ahula da, frantses hezkuntza ministerioaren menpe delako eta ez delako egiazko xederik agertzen¹ euskararen garapenaren alde.

Nahiz eta ikasleen maila apala izan, euskarako irakasleek gehiengoan literatura lantzen dute

1 https://mediabask.naiz.eus/fr/info_mbsk/20190208/reforme-du-baccalaureat-la-langue-basque-en-danger

haien klaseetan. Honen bidez, kultura bektore batzuk transmitituak izanen zaizkie ikasleei. Orduan, ikasgelan landutako autoreak ikertuz, iparraldeko irakasleek euskal idazlearen potreta bat eraikitzen dute eta honen irudia aztertzeke asmoa dugu. Irakasleek zein eskualdeko literatura eta zein idazle lehenesten duten jakin nahi dugu. Bukatzeko, eraikiko dugun profila Euskal Herriko eleberririk kanonizatzen dituen autoreetatik hurbil ote den, ikasleen beharrek eta ezagutzekin koherentea denetz aztertuko dugu.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Gure analisia 2017ko abenduaren 2an, zundatze batekin hasi da. Zundatzearen emaitzak 2018ko otsailaren 21ean berreskuratuak izan dira. Parte hartzaileak Iparraldeko bigarren mailako euskarako irakasle guztiak dira. Orotarat, hogeita bat irakasleek zundatzeari erantzun diote, beraz berrogeita hamaika pertsonen gainean, % 41,17²-k parte hartu du. Kopuru hori batez bestekoa baino apalagoa da eta nahiz eta bildutako erantzunak batzen diren, gehiengoak ez du erantzun. beharbada irakasle guztiak galderei erantzun balute, beste profil bat agertuko zela.

Zundatzearen bidez, bi hipotesia nagusiri erantzuteko helburua dugu: Lehena da irakasleek eleberrigintza lantzen dutenean, nahiz eta Iparraldean irakatsi, hegoaldekoei lehentasuna emanen dutela. Honek erran nahi du ikasle askorentzat oztopoak agertuko direla: hiztegi desberdintasunak irakurketan zailtasunak sortuko ditu eta, testuinguruaren eta gizartearen kode guztiak ez dituzte baitezpada ulertuko ere ez. Hala nola, bizi erritmoa, jatorri historikoak edo kokapen geografikoak traba batzuk izan daitezke eleberriarren ulermenean.

Ber maneran, suposatzen dugu hautatutako autoreak eta obrak, kanonizatuak direla eta ondorioz, corpora bereziki gizon autorez osatua izanen dela. Nahiz eta ez nahitara izan, irakasleek curriculum ezkutatu bat transmititzen dutela pentsatzen dugu. Hala nola, curriculum formalak pasatzen dituen balioak sexistak izateaz gain, irakasleak, bere jarreraren, jokabidearen edo obra hautuetan, estereotipo batzuk iraunarazten ditu. Honek ondorio kaltegarriak ukanen ditu ikasleentzat, egoera estereotipatuak eta sexistak transmitituko direlako.


2 Hemen zehaztu behar dugu berrogeita hamaika iparraldeko euskarako irakasleen artean, bederen hiruk historia baizik ez dutela irakasten, beraz portzentaia %43,75era igo daiteke.

3. Zundatzearen emaitzak

1. irudia. Euskarako irakasleek literatura garaikidea dute euskarako klaseetan

1- Literatura garaikidea lantzen ote duzu euskarazko klaseetan?


21 réponses



Hogeita bat irakasleen gain, % 76,2-k euskal literatura garaikidea lantzen du haien klaseetan bigarren mailan.

2. irudia. Obra bat lantzeko irizpideak

Zein dira zure irizpideak obra bat lantzeko?



Hamabost irakaslek (beste seiek ez dute literatura garaikiderik lantzen) erantzun dute obra bat lantzeko irizpide nagusia ikasleen euskara maila dela. Ondotik, hamalauk lantzen dutenari, bederatzik helburu gramatikal bati, seik aktualitateari eta hiruk beste faktore bati lotua dela erantzun dute. Bestalde, hamabi irakaslek adierazten dute obra baten fama edo saritua izatea ez dela irizpide bezala kontsideratua. Bostek diote ez dela aktualitateari, lauk ez dela helburu gramatikal bati lotua eta bik beste arrazoi bat dela.

3. irudia. Lantzen diren obren zerrenda.

Zein obra lantzen dituzu?

10 réponses

Beti oporretan Harkaitz Cano 33 ezkil Miren Gorrotxategi Hobe isilik Garbiñe Ubeda Mussche Kirmen Uribe Euskaldun guztion aberria Iban Zaldua + beste hainbat obren zatiak edo ipuinak
Gizaki bakartiak Béatrice Urruspil
"Sugeak txoriari begiratzen dionean", "Idazlana" (itzulpena), "Otto" (itzulpena), "Krokodiloa ohe azpian"
Gerra ez da konprenitzen ahal. Begoña Durruty
Haur koropiloak - barne bidaiak
adb : F.Morilloren Abadiaren sekretua
Aita Junes Cazenave Harigile -nak bereziki, ikasle gehienak xiberotarrak ditut?
Ezekiel eleberria; Idazlana albuma; Okatxu komikia; Nur
Aktualitateari lotuak direnak edo/eta nozioei.
JUUL kanpainen arabera onartuak direnak (data batetik aitzina)

Irakasleei zein eleberri landu dituzten zehaztea galdetu izan zaielarik, hamar erantzun izan dira, eta horien artean hamaika liburu euskaraz sortuak aipatzen dira (azkena ez da eleberria baina komikia): *Beti oporretan*; Harkaitz Cano; *33 ezkil*, Miren Gorrotxategi; *Hobe Isilik*, Garbine Ubeda; *Mussche*, Kirmen Uribe; *Euskaldun guztion aberria*, Iban Zaldua; *Gizaki bakartiak*, Béatrice Urruspil, *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, Bernardo Atxaga; *Krokodiloa ohe azpian*, Mariasun Landa, *Abadiaren sekretua*, Fernando Morillo, *Ezekiel*, Jasone Osoro, *Okatxu*, Asisko, Mattin Irigoien, Adur.

4. irudia. Lantzen diren autore garaikideen zerrenda.

Zein autore garaikide lantzen dituzu?

11 réponses

Ikus liburuen zerrenda
Béatrice Urruspil, Bernardo Atxaga
Atxaga, Landa, Uribe, Morillo
orain Begoña Durruty. Urtearen arabera. Landu dugu: Patxi Zubizarreta, Fernando Morillo, Kirmen Uribe, Daniel Landart, Aitor Arana, Bernardo Atxaga.....
Fernando Morillo
Juan Kruz igerabide - Erdozaintzi-Etxart- Atxaga
Morillo
Apalategi, Zaldua, Landart, dolhare-caldumbide
Jasone Osore, Toti Martinez de Lezea (euskaraz ez idatzi arren), Daniel Landart
Daniel Landart, Janbattitt Dirassar, Xabier Amuriza, Joseba Sarrionaindia, katixa Dolhare-çaldumbide, Josean Artze, Eneko Bidegain...
Sarrionaindia Montoia Urretabizkaia

Aztertuak diren autoreak, Harkaitz Cano, Miren Gorrotxategi, Garbine Ubeda, Béatrice Urruspil, Bernardo Atxaga (lau aldiz aipatua), Mariasun Landa, Kirmen Uribe (hiru aldiz aipatua), Fernando Morillo (lau aldiz aipatua), Begona Durruty Patxi Zubizarreta, Daniel Landart (lau aldiz aipatua), Aitor Arana, Juan Kruz Igerabide, Erdozaintzi Etxart, Apalategi, Iban Zaldua (bi aldiz aipatua), Katixa Dolharre-Caldumbide (bi aldiz aipatua), Jasone Osore, Janbattitt Dirassar, Xabier Amuriza, Joseba Sarrionandia (bi aldiz aipatua), Josean Artze, Eneko Bidegain, Xabier Montoia, Arantxa Urretabizkaia dira.

4. Ondorioak

4.1. Iparraldeko klaseetan lantzen den autoreak ez da Iparraldekoa

Iparraldeko euskarako irakasleek lantzen duten autoreak nagusiki literatura erdigunetik hurbil kokatzen da, honek erran nahi du Donostiatik. Orduan, irakasleek euskal literatura sistemak sortzen dituen kodeak berriz hartzen dituztela nabaritzen da. Nahiz eta zundatzean irakasleek erantzun duten lehentasuna ikasleen euskara mailari ematen diotela, ohar gaitezke euskal eleberrigintzari – beharbada prestigioa emateko beharraren eraginpean – egindako hautu literarioek ez dutela ikasleen irakurketa ulermena eta maila errespetatzen. Iparraldeko irakasleek ez baldin badute Iparraldeko autoreei tokirik uzten, nola haien lana garatuko da? Etorkizun bat eman nahi baldin bazaie, merkatuaren estandarrei egokitu beharko dira eta haien berezitasunak baztertu beharko dituzte, periferia eta erdigunearen arteko amildegia txikitzeko.

Iparraldeko euskarako irakaskuntza bere testuinguruan kokatu beharko genuke irakasleen autoreen hautuak ulertzeko. Euskarako irakaslearen helburua hizkuntza normalizatzea baldin bada, frantsesarekin konkurrentzian sartuko da, nahigabe ere. Frantses literaturaren irakaskuntzaren eraikuntza antolatua eta orokortua da frantses iraultza garaitik eta bere literaturaren dirdira mundu guztian ezagutua da. Kultura eta literatura tradizio bat finkatzeko, eskola tresna ideala da, instituzio toki berezia delako eta ikasitako normak definitzen dituelako³. Obra edota autore baten kanonizazio prozesuan, irakaskuntza nagusitzen da eta frantses estatuko irakasgai guztiek corpus tradizional bat

badute.⁴ “Tradizional” izenez ezagutzen diren obrak adostasun orokor bat sortzen eta instituzioen logika errespetatzen dituen obrak dira. Frantses instituzioak garraiatzen dituen balioei aurre egiteko, Iparraldeko euskarako irakasleak euskal erdiguneko autoreen hautua egiten duelarik, bere helburua ez ote da euskal literaturaren prestigioa erakustea? Posible da frantses kulturak inposatzen duen pisuari aurre egiteko, euskarako irakasleak bere ikasgaiaren corpus dirdiratsu eta entzutetsu bat proposatzeko asmoa ukaitea.

4.2. Iparraldeko bigarren mailako klaseetan lantzen den idazlea ez da emaztea

Iparraldeko euskarako irakasleek sortutako corpusetan, emazte idazleak minoritatean dira. Miren Gorrotxategik, Garbine Ubedak, Béatrice Urruspilek, Mariasun Landak eta Jasone Osorok, corpusaren egileen % 45 osatzen dute. Baina, aipatuak diren hogeita bost autoreen artean, zortzi emazte dira, autoreen % 32 osatzen dute. Zenbaki hori Euskadi Sariak ukan dituzten obrekin konparatzen baldin badugu, ohartzeko gara HGL-n emandako hogeita hiru sariren gain, zortzi emaztek jaso dituztela, beraz, idazleen % 34,78. Aldiz, Euskadi Sari Nagusia hogeita hamabost aldiz banatua izan da eta hiru emaztek ukan dute, % 8,57. Guztirat, autore sarituen % 18,96 emazteak dira Euskadi sari nagusia eta HGL-ko sariak nahasiz. Ber maneran, Euskal Idazleen Elkartearen laurteko eta hamabost idazleen gainean, laurogeita hamasei emazte atzeman ditugu, idazleen % 23,13 osatzen dute⁵. Beraz euskal estandarrei konparatuz, Iparraldeko eskoletan emazteen tokia altuagoa da baina minoritatean gelditzen dira.

Baztertze honek gizonen literatura estandarrek sortzen dituztela suposatzen du, hizkuntza, gaien eta pertsonaien eraikuntzaren aldetik. Iparraldeko emazte idazlea periferiaren periferian kokatzen da. Literatura gizonen afera balitz bezala, euskal literatura “emazterik gabeko” literatura dela dio Itxaro Bordak⁶. Pertsonaia femeninoak, “emeak” deitzen dituenak, estereotipoz beteak dira eta ez dute sinesgarritasunik. Literatura unibertsala gizonen egiten baldin badute, zeren itsura dute pertsonai femeninoek? Gemma Lasarte Leoneten⁷ lanek erakusten dute emazte idazleei tokia uzten zaielarik emazte protagonistak sortzeko, ez dituztela gizonen kliseak segitzen eta pertsonaia mota berri bati bizia ematen diotela, betiko rola segitzen ez dituenak. Emazteak ez du pertsonaia femeninoa maitasun, gurasotasun kontuetan, mugatzen. Ez da gehiago pertsonaia pasibo bat, indartsua eta ziurtasuna irabazi ditu.

3 Bourdieu P, de Saint Martin M, (1970) L'excellence scolaire et les valeurs du système d'enseignement français, *Annales*, 147-175 orr.

4 Alain Viala, *Qu'est-ce- qu'un classique*, BFF, n°1.

5 2019ko urtarrilean haien webgunean atzemandako datuen arabera.

6 Borda I, (2001) *Plazarakoak? Bai noski*, Udako Euskal Unibertsitatea.

7 Lasarte Leonet, G, (2011) *pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*, EHU – UPV.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Irakaslearen rola nagusia literatura berdintzaile baten irakaskuntza da. Bere lana ez da euskararen transmisioan eta testu batzuen hautuan mugatzen. Euskal literatura sistema berriz produzituz bere klaseetan, gizartearen makurrak zabaltzen ditu. Irakaslea curriculum ezkutatuaz kontziente bilakatu behar da, egunero erne egon beharko da sexu berdintasunen alde lan egiteko. Corpusaren hautuak gaineko desafioak kontuan hartu beharko ditu, eta batzuetan beste helburu pedagogiko batzuk baztertu beharko ditu. Amaia Alvarrez Uriaren erranez⁸, “irudi sexistei bizkarra eman behar zaie, emakumeok batak besteari begiratu behar gara belaunaldietako elkartasuna bilatu, subkultura femeninoan edertasun-irudiak bilatu, emakumeen biografiak bilatu isildutako heroinen historia ezagutarazi behar da”. Orduan, literaturaren genero indarkerien aldaketaren abiapuntua kontzientzia hartzearekin hasten da. Ondotik, deseraikitze fasea has daiteke, eredu irudi berriak proposatuz baina ere ikasleekin trukatur.

Argi dugu atera ditugun emaitzak orokortzekoak eta sakontzekoak direla gure tesia indartzeko eta badakigu irakasleari ardura asko ematen dizkiogula eta ezingo dituela bete ez baldin badu formakuntzarik. Gaurko frantses sistemak ez du oraindik genero berdintasunari buruzko gogoeta sakonik egiten eta estereotipoak berriz produzitzeko atea irekia uzten du. Orduan nola obra tradizionalak landu genero berdintasunaren ikuspuntua errespetatuz?⁹ Hemen helburua ez da feminismoa eta emazte autoreak noiztenka barreiatzea baina generoaren ikasketa integratzea gure irakaskuntza sisteman, emazteen presentzia edo absentsia, haien rolari buruz galderak pausatuz eta erremediatzeko estrategiak bilatuz¹⁰.

Bukatuko dugu erranez Iparraldeko euskarako irakaslea egoera eskizofreniko batean kokatua dela. Alde batetik ikaslearen euskara mailari aurre egin nahi dio, hizkuntza eta kultura sendo batzuk irakatsiz. Bestalde euskal literaturak proposatzen duen katalogoarekin egin behar du, hots, literatura erdiguneak inposatzen duenarekin. Orduan, HGL obra nagusiak ez dira Iparraldeko ikasleentzat egokiak eta literatura mota bat garatu beharko da Iparraldeko irakurlegoarentzat, bere hizkuntza eta bere ingurumena errespetatuz. Euskal merkatuaren jarrera oztopo nagusi bat da euskal literatura egokia garatzeko Iparraldean. Baina euskal irakurlegoa muga administratiboetatik at kokatzen da eta periferian kokatzen direnen ezberdintasunei balioa eman beharko genuke merkatuak gure aberastasunak leundu aitzin.

8 Avarez Uria A, (2014) Genero-performatibitatea eta botere-harremanak euskal narratiba garaikidean, *Gorputza eta*

9 Pasquier G, (2010) L'égalité des sexes au quotidien, *Nouvelles questions féministes*, vol 29, 60-71.

10 Max S, Delmas F, (2013) Les stéréotypes à l'école, une menace de l'identité pour certains élèves, *Filles – Garçons, question de genre de la formation à l'enseignement*, Pul, Lyon.

6. Oharra

- Lan hau 2017an hasitako *Haur gazte euskal literatura garaikideko pertsonaia: estereotipoen analisia eta genero irudikapenen transmisioa* titulu duen tesia baten testuinguruan hasia izan da. Ikesketa lana Bordeaux Montaine eta EHU eskolen artean egin da Aurelia Arcocha eta Gurutze Ezkurdiaren zuzendaritzapean.

7. Bibliografia

Aizpuru A, (2019), La réforme du baccalauréat: la langue basque en danger, *Médiabask*, n°215

Apalategi U, (2005) Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa) Zenbait hipotesia, *Lapurdum*, n°X, 1-18. orr

Avarez Uria A, (2014) Genero-performatibitatea eta botere-harremanak euskal narratiba garaikidean, *Gorputza eta generoa, Teoria, didaktika eta esperientziak*, UEU, 101-114 orr, Donostia.

Borda I, (2001) *Iparraldeko literaturari sohaso bat*, Udako Euskal Unibertsitatea.

Borda I, (2001) *Plazarakoak? Bai noski*, Udako Euskal Unibertsitatea.

Bourdieu P, de Saint Martin M, (1970) L'excellence scolaire et les valeurs du système d'enseignement français, *Annales*, 147-175 orr.

Dumont GF, (2005) L'enseignement de la nation dans l'éducation en France : objectifs et questionnements, *Outre-terre* (n° 12), 393 - 422 orr.

Hernandez Garcia JM, Esteban ML eta Bullen M, (2016) Feminismoa, euskal antropologiaren akuilu eta elikagai: 30 urteko ibilbide oparoa, *Etografia feminista Euskal Herriak XXI. Mendera begira dagoen antropologia*, UEU, Donostia.

Iturbe A, (2001) *Emakume sortzaileak plazaratzeko arazoak*, Udako Euskal Unibertsitatea.

Jon Kortazar, (2007) *Postmodernitatea euskal nobelagintzan*, Utrisque Vasconiae, Donostia.

Lasarte Leonet, G, (2011) *pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*, EHU – UPV.

Manterola Agirrezabalaga E, (2012) *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulua, Bernardo Atxagaren lanen itzulpen motenarteko aldaera*, UPV – EHU.

Max S, Delmas F, (2013) Les stéréotypes à l'école, une menace de l'identité pour certains élèves, *Filles – Garçons, question de genre de la formation à l'enseignement*, Pul, Lyon.

Marx D M, Goff P A, (2006) Clearing the air: The effect of experimenter race on target's test performance and subjective experience, *Article British Journal of Social Psychology*, 645-57.

McIntyre RB, Paulson RM, Lord CG, (2003) Alleviating womens mathematics stereotype threat through salience of group achievements, *Journal of Experimental Social Psychology* 9, 83–9.

Olaziregi Alustiza MJ,(1995), *Euskal Gazteen Irakurletasuna aztereta soziologikoa*, Bergarako udala, Bergara.

Osoro J, (2001) *Emakume sortzaileak plazaratzeko arazoak*, Udako Euskal Unibertsitatea.

Pasquier G, (2010) L'égalité des sexes au quotidien, *Nouvelles questions féministes*, vol 29, 60-71.

Reizabal Arruabarrena L, Eldua Azkarate M, Areizaga Llorente I, (2015) Hezkuntza sistema hezikidetzailerik, *Genero berdintasunean hezteko gida, Familia, irakasle, eta bestelako hezitzaileentzat*, UEU, Donostia.

Reizabal Arruabarrena L, Pena Sarrionandia P, (2015) Genero-sozializazioa, *Genero berdintasunean hezteko gida, Familia, irakasle, eta bestelako hezitzaileentzat*, UEU, Donostia.

Urretabizkaia A, (2001) *Ikuspuntu – arkeologikoa*, Udako Euskal Unibertsitatea